

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

2020ko ekainaren 11ko akordioaren laburpena. Horren bidez, diru-laguntza deialdia argitaratzen da, Zuiako txikizkako merkataritzari, ostalaritzari, jatetxeei, autonomoei enpresei eta sozietateei zuzenduta

BDNS(Identif.): 515001

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>) (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/515001>)

Lehenengoa. Onuradunak

Txikizkako merkataria, ostalaritza- edo sukaldaritza-establezimenduak, autonomoak, enpresek eta sozietateak, beren forma juridikoa edozein delarik ere, beren jarduera Zuian egiten dutenak, eta egoitza fiskala Zuian edo beste udalerriri batean dutenak, beti ere erakunde edo norbanako eskatzailearen salmenta- edo zerbitzu-gune bakarra (lan-jardueretarako zentro bakarra) Zuiako udalerrian badago.

Bigarrena. Xedea

Eragileen enpresa-jarduera edo jarduera ekonomikoa gutxitu edo bertan behera uzteak ekarritako inpaktu ekonomikoa arintzea, eta udalerriko jarduera ekonomikoa bultzatzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2020ko ekainaren 11n onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Partiden zuzkidura ekonomikoa 60.000 eurokoa da (tokiko sektore ekonomikoa osorako egiturazko gastuak), 150.000 euro (jarduera gutxitu behar izan duten edo fakturazioa gutxitu zaien autonomo edo enpresentzako laguntzak) eta 200.000 euro (interesik gabeko aurrerakin itzulgarriak).

3 laguntza mota daude: egiturazko gastuetarako diru-laguntzak, 76.70 eurotik 1.902,02 eurora; beren jarduera bertan behera utzi behar izan dutenentzat, 2.000 eurotik 1.000 eurora arteko ordainketa bakarra, hurrenez hurren, 6 langiletik gora edo behera dituzten kontuan hartuta, edo 700 euro, 2019ko lehenengo seihilekoarekin alderatuta ehuneko 30 diru-sarrera gutxiago jaso badituzte; eta interesik gabeko aurrerakin itzulgarriak, 5 urteko gehienezko tartean, 10.000 euroko gehienezko kopuruarekin.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2020ko abuztuaren 14ra arte.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo oinarrietan azaltzen dira.

Murgian, 2020ko ekainaren 11n

Alkate-udalburua

UNAI GUTIERREZ URKIZA